



6. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko maiatzaren 25ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta zazpiko maiatzaren 25ean.

BERTARATUTAKOAK:

Lore Suárez Linazasoro andrea
Jesús M^a García Garde jauna eta
Fco. Javier Pombo González jauna

Presidentea:

D^a Izaskun Gómez Cermeño alkatea

Lehen bilera-deialdian bildu bira, Izaskun Gómez Cermeño alkatea buru dutela, goian aipatutako zinegotziak eta jarduneko idazkari Joseba Belaustegi Cuesta jauna, Tokiko Gobernu Batzarra egiteko, aurretik bidali zaien bilera deiari jarraiki. Ezin etorria justifikatu du Lucia Querido Noceti zinegotziak (osasun-arazoengatik).

Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Tokiko Gobernu Batzarra eratzeko, eta bilkurari hasiera eman dio 10:35ean; gai-zerrendako puntu bakarra aztertzeari ekin zaio, aho batez gaia presazkoa dela onartu ondoren.

1.- Kontratazioen gaiari buruz alkateak hartutako erabakiak baliozkotzea

Alkatea da kontratazioetan eskumena duen organoa, kontratazio horren zenbateko altua dela-eta, Legeak kontratazio-organoa udalbatzarrak izan behar duela adierazten duenean izan ezik (apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.ñ artikulua).

Hala ere, 2003ko ekainaren 19ko ebazpenaren bidez, Pasaiako alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari (lehen, Gobernu Batzordea) eskuordetu zion 60.101'21 € baino gehiagoko zenbatekoko kontratazioei zegokien eskumena.



Dena den, aurreko legealdian geureganatutako inertzia dela-eta, –eskumen horiek ez ziren eskuordetu–, udalak kontratazio-organoa alkatea balitz bezala jokatzeko jarraitu du. Horrenbestez, organo horrek sinatu ditu kontratazioei buruzko hainbat ebazpen, hasi baldintza-agirien onarpenetik eta kontratu-esleipenak arte; hala ere, obra-ziurtagiriak Tokiko Gobernu Batzarrean onartu dira

Akatsaz jabeturik, Tokiko Gobernu Batzarrak baliozkotu behar ditu alkateak behar ez den eran emandako administrazio-egintzak. Legeak baliozkotze horiek egiteko aukera ematen du, emandako egintzak ez direlako baliogabeak. Izan ere, aurrerago aipatu den moduan, alkateak zuen, jatorriz, horiek emateko eskumena eta ez da agerikoa egintza horiek emateko gaitasunik eza. Izan ere, eskuordetzea baliogabetuz gero, organo horren eskumena erabatekoa izango litzateke.

Horrenbestez, eta azaroaren 30eko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 67. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako kideen adostasunez,

ERABAKI DU

2003ko ekainetik 60.101'21 € baino gehiagoko zenbatekoko kontratazio-prozeduretan alkateak hartutako ebazpen guztiak baliozkotzea eta berrestea.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 10:40ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.